




SANTU GUZTIEN EGUNA

2025

ttipi-ttapa | 888 zk. | 2025-10-16



SANTU GUZTIEN EGUNA

Hildakoak presente izateko eguna izaten da Santu Guztien Eguna. Urriko azken eta azaroko lehenengo egunetan ohi baino jende gehiago ibiltzen da hilerrien bueltan, eta ohi baino koloretsuago daude hilobiak. Santu Guztien Eguna ospatzen du eliza katolikoak azaroaren 1ean, eta bestak kristautasunean oinarria izan arren, hildakoak oroitzea errotutako ohitura bihurtua da gurean sinestunentzat zein sinestunak ez direnentzat.

Bakoitzak du hildakoak oroitzeko bere modua. Aunitzek hilerrian hila garbituz eta bertara loreak eramanez oroitzeko dituzte hildakoak. Aldiz, geroz eta gehiago dira hilerrietatik kanpora hildakoak oroitzeko jarritako harriak eta oroigarriak.

Oroigarri horietan bisita egitea ohi-koa bihurtua da, eta bertan loreak uzteko ohitura hartu dute aunitzek. Bertze batzuek, aldiz, hildakoaren errautesak botatako lekura bisita eginez oroitzeko dituzte, eta izanen da mahaiaren inguruan elkartuz eta une goxoak oroitzuz elkar zainduko duenik ere.

Geroz eta guttiago dira kristauak eta kristau praktikanteak, eta beraz, azken urteetan aldatu egin dira heriotzaren errituak. Geroz eta ohi-koagoa da hildakoak erraustea eta horien errautesak hilerrietik kanpo, hildakoaren leku gustuko batean botatzeko ohitura. Urteekin aldatu eta berriro egiten dira ohiturak, denborarekin aldatu ez dena, hildakoak oroitzeko gogo eta maitasuna dira.



ARGAZKI JABEA



DOMISAINDU EGUNA

Azaroaren 1ean maite dituzunak loreekin gogoratu



Iturrunzubiko plaza, 11 | LESAKA T. 948 627 542 · 722 748 836

Santu guztien egunerako




aukera zabala

Jaime Urrutia 21 | Tel. 948 58 10 53 | ELIZONDO

LORE SORTAK
LORE-LANDARE KONPOSIZIOAK
NATURALAK ETA ARTIFIZIALAK

Lore moztuen eskaerak urriaren 25era bitartean edo agenda bete arte

ZU loredenda dekorazioa osagarriak

LEKUZ ALDATU GARA!
Kanttonberri 6 zenbakian egonen gara!

Urriak 25 - 09:30-13:00 / 17:00-19:30
Urriak 26 - 09:30-18:00

zuloredenda@hotmail.com Tel.: 948 625 786



*Bañueloak eta
etxeko produktuak*

Altzate, 21 · BERA · T. 948 630 786

ANTZUZELAI
S.L.

BERA
T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com



HARGINTZA | FATXADAK | TXIMINIAK
ZOLAK | TAILLA ARTISTIKOAK | OBRAK

OMIASAINDURAKO
LORE ETA LANDARE
ESKAITZA ZABALA



LOREAK ETA LANDAREAK

Erreserbatu
omiasaindu egunerako loreak
eta mintegian gordeko dizkizugu




Astelehenetik ortzirralera:
09:00-13:00/16:30-19:00
Larunbatak: 09:00-13:00
Igandeak: 10:00-13:00
Otsango auzoa · LESAKA
T. 948 637 826

«Geroz eta gehiago jartzen dira harriak hilerrietatik kanpo»

JEAN PIERRE MORANTE ANTZUZELAIKO ARDURADUNA



TTIPI-TTAPA

Lan aunitzeko urte sasoia izaten da udazkena Berako Antzuzelai hargintza lantegian. Duela 34 urte sortu zuten, 1991n, eta Jean Pierre Morante da bertako arduraduna. Antzuzelaik 34 urte baditu ere, aspaldikoa da Morantek harriarekin duen harremana: «1979an, kasualitatez hasi nintzen», kontatu du. «Bentetan eta sukaldaritzan apendiz gisa aritua nintzen lanean eta hemezortzi urte nituelarik, bizitzan zer egin ez nekiela gelditu nintzen. Proposatu zidaten Iparraldeko harrobi batean lan egitea harlauzak ateratzen. Joan nintzen eta ez dakit zergatik, baina, gustatu zitzaidan, nahiz eta lan gogorra zen». Ondotik, Saran ikasi zuen harginaren ofizioa: «Gustuko lana nuen, eta sentitzen nuen gainera balio nuela». Hala, 1991n erabaki zuen bere kabuz hastea. Gaur egun hamabi lagun ari dira lanean Berako tailerlean eta «kontent» da.

Hileta artearen garaia

Gaur egun, batez ere eraikuntzarako aritzen dira lanean Antzuzelain, baina, bertzelakoak ere egiten dituzte: tximiniak, taila artistikoak, eta tartean, baita hileta artea ere:

hildakoak oroitzeko estelak, panteoiak, inskripzioen zizelkatzea, eta baita horien zaharberritze lanak eta garbitze lanak ere. Santu Guztien Egunaren bueltan aunitz izaten dira hilerrietara edo hildakoak oroitzeko harrietara bisitan joaten direnak, eta lan horiek egiteko garaia izaten da oraingoa hargintza tailer aunitzetan.

Jendea azken orduan

Azaroak 1 hurbildu ahala, hileta artearekin zerikusia duten lan gehiago izaten dituzte Antzuzelain: «Tximiniarekin neguan oroitzen gara, igerilekuarekin udan eta hildakoekin azaroan», azaldu du Morante bertako arduradunak. «Panteoietan, adibidez, zaharberritze lanak azkar egiten ahal dira, baina, panteoi zaharrak edo erorita daudenak moldatzeko denbora gehiago behar izaten da». Horregatik, horrelako lanen bat egin nahi dutenei denboran pixka bat aurreratzeko eskatu die: «Abuztu hondarra, adibidez, garai ona da horrelakoak eskatzeko».

Batez ere eskuz aritzen dira lanean, eta, artisau lanak izaten dira Antzuzelain egiten dituztenak. «Hona etortzen denak eskulana nahi →

Aukera handia
kalitatezko produktuetan

*Zuretzat hautatutako
lore aukera zabala.*
Santu Guztien egunerako
lore bereziak.

Eginiko erosketaren %10,
zure fidelizazio-txartelean
gehituko dugu.

Landiflor

Landiflor, zure loredenda, egunero zabalik:

9.30 - 12.30 / 13.30 - 18.30

Dantxarinea 31712 URDAZUBI / landiflor@ventapeio.com

www.venta-peio.com



FR. +33 9 72 10 40 20

ES. +34 948 625 130

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T.948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com
www.harrilan.com



EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU



izaten du», nabarmendu du. «Inskripzioak egiten ditugu, baina gehienak estelak izaten dira. Granitozko lanik ez dugu egiten». Urteak joan ahala, hilerrietan paratzeko lanez harago, hildakoen gustuko lekuetan jartzeko oroigarriak indarra hartzen joan dira Moranteren hitzetan: «Geroz eta gehiago eskatzen dizkigute hilerrietatik kanpora, hildakoaren leku gustuko batean jartzeko harriak, errautsak botatako lekuan, edo etxe-ko lorategian, adibidez».

Bezero gehien Iparraldean

Gaur egun hileta arteko hamar bezerotatik bederatzi Iparraldekoak izaten dituzte Berako tailerrean: «Han hilerriak diferenteak dira, estetikoagoak eta bertze alaitasun bat izaten dute». Batez ere hildakoen afizioekin lotutako lanak egiten dituzte: «Aunitz eskatzen dizkigute hildakoen afizioarekin lotutako elementuak sartzeko. Gauza alaia- goak dira, eta ez da oroitzapen triste bat izaten. Hala iruditzen zait, niri behintzat». Bezeroek «argi» izaten dute nahi dutena, eta «kon-

tent» gelditu ohi dira lortzen duten emaitzarekin.

Galtzen ari den ofizioa

Aunitz aldatu da hargintza eta harriarekin lan egiteko manera Moranteren ustez. Garai batean «fiskoagoa» zen: «Gaur egun bentosa batzuk ditugu harriak mugitzeko, eta ez da esfortzu fisikorik egin behar», azaldu du. Hala ere, sektorea gainbeheran ikusten du: «Gazteek ez dute horrelako lanetan aritu nahi». Hargintzaz harago, bertzelako «lanbide tradizioaletan» ere antzeko joera dagoela dio: «Lan hauetan inportantea praktika da, eta eginez ikasten da. Ikasteko eta lanerako gogoia izatea garrantzitsua da, eta ikasteko prest etorri behar duzu».

«LAN HAUETAN INPORTANTEA PRAKTIKA DA ETA EGINEZ IKASTEN DA»

MARMOLES SOULE

www.marmolessoule.com

LAPIDAK | PANTEOIAK
HILERRIAK | ZAHARBERRITZEAK
GARBIKETAK | HARRI ZIZELKATZEA

M. 688 605 182 | T. 948 453 444
ARIZKUN | marmolessoule@gmail.com



lafitte.
jardinerie

Jardinerie Lafitte
84, 1945 maiatzaren 8ko etorb.
64100 Baiona
Tel.: 00 33 5 59 42 24 42

🌐 jardinerie.lafitte.net
✉ jardinerie@lafitte.net



**OMIASAINDU EGUNERAKO
AUKERA ZABALA**

